

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

**Lehiaketa bidez garbitzaile lanpostu bat betetzeko deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta epaimahai kalifikatzaileko titularrak eta ordezekoak izendatzea**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta alkateak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onetsi du. Baztertuta agertzen diren hautagaiek bost egun balioduneko epea izango dute, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, baztertuak izateko egon diren akats edo hutsak zuzentzeko, bai eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Onartuak (1. abizena/2. abizena/lzena):

De la Torre Manteca, María Teresa.

Baztertuak: bat ere ez.

Aldi berean, epaimahai kalifikatzaileko kideen izendapena onetsi eta argitaratu da:

Epaimahaiburua. Titularra: José María Blanco Mateo. Ordezkoa: Vidal Olabarría Muñoz.

Epaimahaikidea (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea). Titularra: Valentín Fernández de Luco Martínez. Ordezkoa: Javier Latorre Aguillo.

Epaimahaikidea. Titularra: Celestino Garrido Sáenz. Ordezkoa: Igor Nájera Garrido.

Epaimahaikidea. Titularra: Olga Saenz de Tejada San Martín. Ordezkoa: María Begoña Ayala León.

Epaimahaikidea. Titularra: Pilar Muro Murillo. Ordezkoa: Elvira Aguado Torrealba.

Idazkaria. Titularra: Jorge Gallo Medina. Ordezkoa: Izaskun García Zorzano.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat. Euskararen egiaztatzea. Titularra: Susana Jauregialzo Arregui. Ordezkoa: Iratxe Etxebarria Arizmendi.

Epaimahaiburuak deialdia egin ondoren eratuko da epaimahaia, eta erabakiak Lapuebla de Labarcako udaletxeko iragarki taulan eta [www.lapuebladela-barca.eus](http://www.lapuebladela-barca.eus) web orrian argitaratuko dira.

Hautagaiek epaimahaiko kideak ezetsi ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horren 23. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direla uste badute.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da. Baldin baleude, onartu edo baztertuko dira, beste ebazpen baten bidez. Horrek behin betiko zerrendak onetsiko ditu eta berriro argitaratuko da.

Azken ebazpen horren aurka, bai eta epaimahaikideak izendatzeko ebazpenaren aurka ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko izango dira, onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta epaimahaiko kideak izendapenari dagokionean, beste hainbeste, iragarki hau ALHAOn

argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da, hala iritziz gero.

Horren aurretik, egun beretik hasita hilabeteko epean, aukerako berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio alkateari. Dena den, ezingo dira bi errekurtsioak aldi berean egin.

Lapuebla de Labarca, 2022ko irailaren 27a

*Alkatea*

*MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ*